

ASTEIZ GEU

84. zk.
1999ko
abendua

GEU elkartearen babesarekin

FRANKEO ITUNDUA 48/27



GERRA ZIBILA ARABAN. ERRESISTENTZIA.
BENETAKO HISTORIA.
MARTINEZ MENDILUZE ANAIK.

globenik

Liburudenda



ZORIONAK eta URTEBERRI ON!!



**Benito Ginea kalea, 2 • Tel-Faxa: 945 25 75 14
01003 - GASTEIZ**


AURKIBIDEA



4. orr.
Botikak euskaraz.



6. - 9. orr.
Laburrak.



10. orr.
Gabonzaharra.



12. orr.
Jose Antonio Mtz. Mendiluze.




17. orr.
PITI-PATA
"Ipuinak".




20. orr.
Koldo Fdz. de Larrea. Txirrindularia.



23. orr.
Azken ordukoak.



24. orr.
Euskal kale izendegia.



26. orr.
Iñaxio Lpz. de Arana.
Itzulpengintza.



28. orr.
Xabier Montoia.



31. orr.
DOVER.



32. orr.
AGENDA.

AZALEKO IRUDIA: ARALAR LIBURUAK ARGITALETXEKO ARTXIBOA

GEU GASTEIZ, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a · Telefonoa eta Faxa: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es **Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate.
Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.
Argazkiak: Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV.
Testuen orrazketa: E.B. **Maketa:** DAV '99. **Komikia:** Iñigo Sarasola.
Kolaboratzaileak: Amaia Zaldúa, Maider Perez eta Iñigo Kastresana.
Publizitatea: Edurne Begiristain. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati) · Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 · Frankoe Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzunkizunak.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria




Gasteizko Udala
Kultura Saila



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



SUTONDOA



Gasteizen gero eta euskara gehigo

Botikak euskaraz erosi nahi dituzula? Ba... Koldo Mitxelena kalean Esther Ederra Irurzun botikariak ireki duen farmazian aukera daukazu. "Apositu", "tirita"... Badakizue!, baina badaezpada hiztegia birpasatu...

E.B.Z.
I.K.



ZERBITZUA
EUSKARAZ
ESKAINI
DEZAKETEN
DENDAK ETA
ABARREKOAK
EZAGUTZEN
BADITUZUE,
BIDALI INFORMA-
ZIOA TXOKO
HONETAN
ATERATZEKO.
Eskerrik asko!

G
e
u
A
Z
o
k
a

SALMENTAK ALOKAIRUAK

Logela baten bila bazabiltza... Badaia kaleko atiko batean logela bat libre. 945 22 37 97 (Veronica)

Lokal bat alokatzen da tailer artistiko, artisautza tailer edo biltegirako, hiri erdialdean, 20 m² ingurukoa eta oso ekonomikoa. 945 26 41 78 (15:00etatik 17:00etara Elena).

Euskarazko hiztegia, Hiztegia 2000, salgai daukat. Batere erabili gabea dago, berri-berria. 1.500 ptan saltzen dut, dendetan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67.

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18' abiadura; bost urte dauzka eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 25.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handia eta sendoa da, ia batere erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 6.500 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. 945 28 10 67.

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana. Errentan uzten da Opakuako mendian, Araba, 100m2ko etxola, 6000m2ko zoroan kokatua. Informazioa: 945 30 10 27, bulego ordutegian, Isabel.

BESTEAK

DBHko Fisika-Kimika klase partikularak behar. Itziar: 945 24 32 41.

21 urtetik gorako pertsona euskalduna behar da urte t'erdiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, 2 goiz eta 2 arratsalde. 945 14 36 86 (Itziar)

Ume bat zaintzeko, pertsona euskalduna behar da. Deitu 945 28 82 42 telefonora irailaren lehenengo astean edo saiatu irailaren 20tik aurrera.

Euskal Filologiako ikasle bat naiz eta datorren ikasturtean umeak zainduko nituzke. 20 urte, Gipuzkoakoa eta eta haurrekin ondo konpontzen naiz, lehengusuekin behintzat bai. Telf. 943 75 24 67. Egoitz.

Laredon apartamendua alokatzen da uda honetan, hondartzara ondoan. 943 79 52 80. Karmen.

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36.

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

DEIAK

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03.

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66.

Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapatarri kalea, 29, behea.

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 945 22 21 53

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

ARABA EUSKARAZ

Irudiaren aurkezpena

2000. urtean ARABA EUSKARAZ hirugarren aldiz –lehenengoa, 83an, eta bigarrena, 93an- Laudion izango da ekainaren 18an. Laudio Ikastolak 28 urte bete ditu eta 2 eta 18 urte bitarteko hezkuntzan euskara hutsean aritzen den Laudioko ikastetxe bakarra da.

Logotipoa eta maskota Laudio Ikastolako ikasle ohia den Xabi Gorostiagak sortu eta diseinatu du. Diseinatzaile honek “Bai Euskari” kanpainaren diseinua ere egin zuen.


Honela aurkeztu zuten ardura-dunek maskota eta leloa:

2.000 zenbaki esanguratsuaren inguruan, kolore biziak dituen beldarra izango da, gure txikitako esperientzian hain garrantzitsuak

izan ziren zomorrotxoen erakusagarria den beldarra. Ahaztu gabe beldarra ikastola eta herriko baso-mendi inguruaren isla dela, bertako ikasleek beldarra

zuten euren jokuetariko bat. Mugimendua, sinpatia, alaitasuna... Irudi bizia, etorkizunerako prestatzen lagunduko diguna. Beldarra, animalia ahula, baina zainduz gero, tximeleta polit bilakatu dena, gure hizkuntza bezala.

“Txikia zainduz handitu” da leloa. Gure hizkuntza, gure herria



eta gu zainduz gero, guztiok handituko gara. Gu, gure sema-alabak, eta hauen ondorengoak... Gure arbasoak poztuko direlako beldarra tximeleta nola bilakatzen den ikustean.

Asmo asko daude, baina beldarraren hankatxoak orain hasi dira pausoak ematen...



Kan Groak

GAUEZ

Leire 649 57 11 29
Miren . . . 945 13 02 57

ASTEBURUAK

Leire 649 57 11 29
Miren . . . 945 13 02 57
Maider . . 945 26 15 75

Zerrenda berria osatzen ari gara. Bertan agertzea nahi izatekotan deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira eta zehaztu zure ordutegia.

MultiOpticasen gero eta errazagoa da gehiago lortzea.

Izan ere, erabili eta botatzeko Multilens lentine 6 hilabeterako* Packa erosita,

14.900 pta.

baino balio ez duena, sudadera zoragarri bat oparituko dizugu.

*Hilero aldatzeko lente-kaxa bi, 500 ml-ko disoluzio bakarreko bi poto eta lenteentzako zorroa.

BAUSCH & LOMB

MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Kaleak "garbitzen"

PPk Gasteizko Udal Batzako agintea hartu zuenetik sortutako eztabaida sozialik handiena bizi izan da azaroa hasieratik aurrera, Udaleko arduradunek eskale deitutakoak hiriaren zentrutik kaleratzeko erabakia-ekin. Berezikiki Andre Maria Zuriaren plazan egoten den jende talde multzoari zuzendu-tako erabakia da.

Miguel Angel Echevarria, segurtasun publikoaren ardura duen zinegotziak adierazi duenez, poliziaren jokabidea zuzena izaten ari da, jendeak ezin baititu kaleak okupatu, eta udaltzainek beraiekin dituzten txakurrak ere legeak agindu bezala identifikatuta dauden egiaztatu behar dute. Bestetik, irudi kontuak ere aipatu dira: Gasteizen ongizate sozialeko lehen mailako zerbitzuak izanik eskaleak erdiko kaleetan egotea ez dela batere egokia argudiatu zuen zinegotziak. Inguruko dendariak sarri kexatu



direla ere esan dute Udaleko iturriek, baina salaketaren berri eman barik.

Andre Maria Zuriaren plaza-tik kendu nahi dituzten pertso- nek, berriz, inori kalte egiten ez diotela azpimarratu dute eta bakean uzteko eskatu. Eusko Jaurlaritzatik ere ez da begi onez ikusi Gasteizko Udalaren jarrera eta Sabin Intxaurre

Justizia Sailburuak kapitala aske zirkulatzeko eskubidea duen bakarra ez dela gogoratu dio Alonsoren taldeari.

Oihartzun handia sortu duen eztabaida honi konponbidea bilatu nahian Peio Lopez de Munain HIESaren Aurkako Elkartearen arduradun nagusia eta PSE-EEko kidearen bitarte- karitza bilatu du Udalak.

Txirotasuna

Euskal Herria zeharka- tuko duen "Txirotasu- naren aldeko martxa" abian da dagoeneko. Arabako 3.900 etxetan, gainera, inolako solda- tarik sartzen ez dela bizi behar dutela jakin da. Hainbat sindikatu, alderdi politiko eta Eskubide Zibilen Karta- ren bultzatzaileak dira azaroaren 13an Tuter

atik irten eta 27an Bilbon amaitu zen martxaren antolatzaile- ak. Pertsona bat, lan- postu bat; langabetu bat, 83.000 pezetako soldata soziala. Horixe aldarrikatu du martxak.

Datorren urtean Eusko Jaurlaritzak 12.000 mi- lioi emango ditu baz- terketa sozialaren aur- kako borrokarako, bai- na ez da nahikoa izango, inoiz ez baita

nahikoa izan ohi. Dirua Gasteizko Jaurlaritzaren patrikatik irteten bada ere, tokian tokiko erakundeek egiten dute horren kudeaketa, uda- lek hain zuzen.

Arabian, esan bezala ia 4.000 familiak aurre egin behar diote egune- roko bizitzari inolako diru sarrerarik gabe, ez soldatarik ezta langa- bezi ordainik ere. Horietako batzuek IMLa

jasotzen dute, 1.800 inguruk, beste 2.200 baino gehiagok etxea ordaintzeko ematen diren AES laguntzak eskuratzen dituzte. Edonola ere, dirula- guntzak beharrezkoak diren arren, batzuetan arazoa konpondu ez eta gainera ezkutatu egiten dutela salatzen dute askok. Horien ustez, behin-betiko lan- postu duina da irtenbi- de bakarra.

TXUSTAT
TABERNA

ESPEZIALITATEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

EL

BAR
Kutxi

e
g
u
n
e
k
o

Ikasturteari hasiera eman dio Euskharanek

Euskharan Elkarteak antolatutako ikastaro ludiko eta kulturalak hasi egin dira jadanik. Prestatutako ikastaro ludikoen artean pandero, trikitixa, txalaparta eta dantza daude, baina egitarau kulturean jarri dituzte antolatzaileek lan eta ahalegin handienak eta ahozko euskara, komunikazioa eta informatika landuko dituzte, beste gai batzuen artean. Elkarteak lanean daraman urte eta erdian arrakasta handienetakoa izan duen ikastaroa "Berbetan" izeneko mintza-praktikarako gunea izan da.


Euskharan Gasteizko hegoaldeko auzoetako lagunen ekimenari esker sortu zen. Eta egun Arantzabela eta Odon Apraiz ikastolek, Antonio Lopez de Gereñu eskolak, Koldo Mitxeleña institutuak, IKA eta AEK euskaltegiek, Zazpigarren Alaba-k eta Zaramagako Auzo Elkarteak osatzen dute. Ekimenaren helburua Gasteizko euskaldunen topaleku bilakatzea da, eskola eta euskaltegietatik at dagoena.

Etorkizunera begira, berriz, Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentro euskalduna bultzatzeko asmo sendoa dute, hezkun-



tza ofizialaren barruan egongo litzatekeen erakundea sustatzea, alegia. Tresna erabilgarri izan behar duelako euskarak gure eguneroko bizitzan.

Haitzuloak arakatzen



AETk -Abetxukoko Espeleomendi Taldea- espeleologi taldeak eta Arabako Espeleologia Federazioak Arabako haitzuloei buruzko bigarren bideoa kalera-tu dute. Oraingo honetan Gorbeiko harrobietan dagoen Gingiako haitzaren azpiko haitzulo bati buruzko lana da. Kobazuloa Gingiaren pean ustiatu ziren bi harrobietan agertu zen eta lurrazpiko korron-

te bat du.

Kobazuloa mantendu bada talde ekologistek harrobietako leherketak geldiarazteko egindako lanari esker izan da. Burdin arrastoek gorritz, grisez eta beltzez tintatutako estalaktita eta estalagmita ugaridun koba da eta barnean ur-jauzi ederra ere badauka.

AETk eta Federazioak Arabako kobazuloen inguruan egindako bi bideoak gaiari buruzko bakarrak dira. Lehenean Mairulegorreta aztertzen zen.

Kaleratu bideo berriak 12 minutuko iraupena du eta Kirol Etxera (Zerkabarren kalea 5) joanez edo AETko telefono zenbakira -639 26 36 78- deituz lor daiteke.

Ignacio Aldekoari omenaldia

Ignacio Aldekoa oroitzeko eskultura jarri da Florida parkean, Kultur Etxearen aurre-aurrain. Idazle gasteiztarra hil zeneko 30 urte bete direnean etorri da omenaldia, 1925ean jaio eta 69ko azaroan hil baitzen. Idazlearen eskulturaz gain, ekitaldi kulturekin ere gogoratu zen bere urteurrena eta hainbat poeta eta idazle -tarte- Josefina alarguna ere bai- elkartu zen arabarraren lana gogoratzeko, eta Felipe Juaristik euskarara itzulitako Aldekoaren poemak irakurri zituen.

Gaztelerako idazle klasikotzat jo daiteke Ignacio Aldekoa eta poesia, ipuinak eta gizarte gaiak jorratu zituen gehien bat "El fulgor y la sangre", "Con el viento solano", "Los pozos" eta "Gran sol" bere lanetan. Bere garaiko, 50 hamarkada, gizartearen ondo-ondo deskribatu zuen gasteiztarra.

Madrilera joan zenetik ez zuen Euskal Herriarekin harreman handiegirik izan, baina bere alargunak Aldekoak euskal sustraiak oso sakonean sentitzen zituela adierazi zuen.

LIBURUDENDA

axular

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Gizartearen ekimena bultzatu nahian

Elkarrik eta Bakearen Aldeko Koordinakundeak "Adiskidetze kulturaren alde" izeneko manifestu bateratua aurkeztu zuten Gasteizen. Aurkezpenean Jonan Fernandez Elkarriko koordinatzaile nagusiak eta Txema Urkijo BAKeko Batzorde Iraunkorreko kideak hitz egin zuten, eta orain Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoan guztien arteko elkarritzeka zabala ezinbestekoa dela aldarrikatu.

Indar politikoek akordioak bilatzeko lan handiegirik egin ez dutela uste dute bakearen aldeko bi elkarteek eta, horregatik, dei egin diote gizarte zibilarri, prozesu politikoaren irizpideak zehaz ditzan, politikoen hutsuneak bete asmoz.

Jonan Fernandezek Elkarrik aldarrikatzen dituen elkarritzeta eta adiskidetzea zertan dautzan azaldu zuen Goiuriko aurkezpenean: elkarritzeta eta adiskidetzea bestearen tokian jartzean lortzen da, norberak bezala pentsatzen ez duenarekin dauden amankomuneko puntuak bilatuz.



Habemus museum

Azaroaren 2an hasi ziren azkenean Arte Garaikidearen Euskal Museoa egiteko lanak Frantzia kaleko zuloan eta 20 hilabeteren buruan lanek amaituta egon behar dute. Ramon Rabaneraren Gobernuak Aldundiaren ardura hartu eta gero sortutako zalantza eta eztabaida alde batera utzi egin da aurreko gobernu foralak erabakitakoari eusteko. Horixe eskatu zioten gainera Arabako Batzar Nagusiek Gobernu foralari: aurreko legegintzaldian onartu proiektu eta asmoa aurrera eraman zezala.

Lanak, hala ere, PP eta UAre "borondatearen aurka" hasiko dira Rabanerak berak argi eta ozen adierazi eta azpimarratu duenez. Beraien ustetan Jose

Luis Caton Aldundiko arkitektoaren proiektua ona izanda ere, ez da hautatu ahal zen onena, eta "atzerriko arkitektoari onenak egindako proiekturik hobereena" nahi zuten.

Aldundiko Gobernuaren zailtasunak sortzen zituen beste puntuetako bat museoaren azpian dauden aparkalekuak dira. Diputazioko iturriek adierazi dutenez, adituen ustez artelanen segurtasuna ezin da bermatu, ez kotxeetatik igoko omen den kearen eraginagatik, ezta etxeak sua hartzeko kasuan ere. Eta kokaguneak ere hainbat eztabaida piztu ditu, foru agintaritzak Gurutze Gorriaren egoitza izandako tokia proposatu baitzuen.

Formari buruzko kritika eta zalantza hauetan guztietan ez da museoaren erabilera, gestioa eta bildumari buruzko eztabaidarako tarterik egin.

Hamar urte Judimendi euskalduntzen

Judimendi auzoko Jose Mardones kalean dagoen AEK-ko Aixkiri euskaltegiak hamar urte bete berri ditu. Bere bigarren hamarkadari aurre egiteko udan zehar lokala hobetzeko lanak egin eta euskaltegiaren itxura berritu dute.

Aixkiriako irakasle eta arduradunek auzoan



zeharo murgilduta dagoen euskaltegia dela azpimarratu dute 10. urteurrena bete denean. 1989an AEK-k euskaltegia Judimendin zabaltzea erabaki zuenean auzoan ez zegoen euskara talderik, ezta euskal kulturaren aldeko lanik egiten zuen elkarterik ere, eta euskaltegiak euskararekiko atxikimendua bildu zuen, baita arlo honetako ekimenak bultzatu ere.

Ikasle kopuruari dagokionez, euskalduntze ahaleginean Aixkiriara jo duten lagunen kopuruak gora egin du urtez urte.

Amazoniaren aldeko laguntza eske

Ekuaдорreko Amazonian bizi diren shuar herriko bi indiar etorri ziren Gasteizera multinazional handiak oihana eta bertan bizi diren animalia, landare eta pertsonen egiten ari eta egindako mina salatzeke.

Amazoniari gero eta gehiago begira dauden Texaco moduko multinazional handiak oihanera iristeak arazoak baino ez dizkielek ekartzen azpimarratu zuten bi lagunak, eta beraien jarduerak dela medio hainbat landare eta animalia ezin dituztela botikak egiteko eta jateko erabili azaldu. Shuar herriaren ordezkariak esan zuten, dirua erraz eta erruz egiteko Hegoamerikara jotzen duten enpresa handiek bertako



bizilagunak ez dituzte ikusi ere egiten, eta are gutxiago kontuan hartzen.

Hala ere, Euskal Herrira iritsitako bi shuarrek beren hizkuntza eta nortasun kulturala mantenen

tzea lortu dutela azaldu zuten -era tradizionalean jantzita eta margotuta agertu ziren kazetariaren aurrean-, eta bere bizimodua eta lurrak defendatzeko azkena emateko prest ere bazeudela azpimarratu.

Elkartasun karabana



Azaroaren 13an Aljeriako hegoaldean dagoen Tindoufeko errefuxiatuen esparrua abiapuntu zuen karabana irten zen Armentiatik. Bertan Euskal Herrian saharar errefuxiatuei bidaltzeko eskuratu guztia bildu zen. Ohi bezala, laguntza humanitaria eramateaz gain, teorian datorren urtean egin behar den erreferenduma prestatzeko materiala eta azpiegiturak ere bidali dira Euskal Herri-

tik Saharara.

Karabanak daramana hainbat lagun eta erakundek emandako diruari esker lortu da, eta Aljeriako hegoaldeko errefuxiatu esparruan bizi diren sahararrek behar-beharrezkoa dute. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak -NBE- errefuxiatu estatutua onartu zien aspaldi Tindoufeko biztanleei eta bera, UNHCR-ren (Nazio Batuen

Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusia) bitartez, jateko adina izan dezaten arduratzen da. Janariaz besteko beharrak, berriz, atzerriko elkartasunari esker baino ez dira betetzen.

Euskal Herrian bildutakoa bi arlotan bana daiteke, esan bezala. Alde batetik, laguntza humanitaria, eta horren barruan Gasteizko Udalaren dirulaguntzari esker erositako 1.300 lagunentzako zapatak, eta uraren garraiorako erabiliko diren Forondako aireportuko suhiltzaileek bidalitako 2 zisterna-kamioi.

Erreferenduma prestatzeko erabiliko diren azpiegituren artean, basamortuan ibiltzeko hamar ibilgailu -boto-emaileak identifikatzeko erabiliko direnak- eta Saharako Irrati Nazionala berritzeko azpiegitura. Horretaz gain, anbulantziak, trailer-kamioi bat eta ibilgailu gehiago ere Alacanterako bidean jarri ziren, bertan hartu baitute Aljeriara joateko itsasontzia Estatuan prestatutako karabana guztiek.



ETA... GABONZAHARREAN, ZER?

Bai, halaxe da: Gabonak gain-gainean ditugu. Zenbait gasteiztar harrapatu ditugu euren sendi eta lagunentzat opariak erosten. Baina guk jakin nahi duguna ez da zer den gehien erosi ohi dena, baizik eta Gabonzaharrean begira, zeintzuk diren bakoitzak dituen planak.

1.- Iraganeko Gabonzaharretan zer egin izan duzu?



- 1.- Nik neure familiarekin igaro izan ditut orain arteko Gabonzaharrak.
- 2.- Nire ustez egun hauek sendiarekin egoteko momentu aproposenak dira; hortaz, aurren ere etxean geratuko naiz.

Iker. Ikaslea.

2.- Zeintzuk dira zure aurtengo Gabonzaharrerako planak?



- 1.- Gabonzaharreko gaua etxean pasatu ohi dut, nire familia guztiarekin.
- 2.- Aurren koadrilako lagunek alde zaharretik irtetzeko asmoa dugu, ea zelako giroa sortzen den ezagutzeko.

Aitor Lasala.
Ingenieritza ikaslea.



- 1.- Nire familia guztia inguruetako herritxo batean bildu izan da.
- 2.- Oso gogoko ditut une hauek, batez ere familia osoa elkarrekin dagoelako. Horregaitik, aurren ere denak bilduko gara, joan zen urteko Gabonzaharra hobetzen saiatzeko.

Peio Sanchez. Ikaslea.



- 1.- Nire gurasoei betidanik Gabonzaharreko gaua elkarrekin pasatzea gustatu zaie.
- 2.- Aurren, mahatsak hartu bezain laster, lagunekin geratu eta bueltatxo bat ematera joango naiz.

Itxaso Mentxaka. Ikaslea.



- 1.- Azken urte hauetan nire lagunekin irten izan naiz Gabonzaharra eta Urteberria ospatzera, hori bai, behin 12 mahatsak etxean eta sendiarekin hartu ondoren.
- 2.- Nahiko lanpetuta egongo naizela uste dut: besteek ondo pasatzen dute bitartean, nik taberna batean lan egin behar dut. Dena den, aurkituko dut neuk ere irtenalditxo bat egiteko unea.

Maite Lekue. Kazetaritza ikaslea.



- 1.- Joan den urtera arte Urteberria nire sendiarekin ospatu dut, baina orain nire lagunekin Gasteizko kaleetatik irten nahiago dut.
- 2.- Aurtengo Gabonzaharrean kotiloi horietako batera joatea gustatuko litzaidake, baina oraindik norekin joan aurkitu behar dut.

Marta Alonso.
Ekonomiketako ikaslea.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin





ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



URTE

Jose Antonio Martinez Mendiluze:

“Errepresioa gogorra izan arren faxismoaren kontrako borroka ez zen eten”

Gerra Zibila gogora ekarri digute politikoek Franco jeneralak zuzendutako Estatu kolpea salatu eta gaitzesteko Madrilgo Kongresuan eta Arabako Batzar Nagusietan eztabaidatu eta onartu diren mozioak direla medio. Arabako kasuan kolpearen aurka EAJk aurkeztutako mozioari atxikimendua eman zioten alderdi politiko guztiek, Gobernuan dagoen PPk izan ezik. Rabanera buru duen alderdiak behin eta berriro aldarrikatu zuen Estatu kolpe guztien aurka daudela, baina bozketan abstenitu egin ziren, testuan “legalitatearen aurkako beste indarkeriak” salatu ez zirela argudiatuz.

• Zer iruditzen zaizu egun Gerra Zibilari hasiera eman zion kolpearen denuntzia egitea? Zorrik ba al dago gerra bizi izan zuen belaunaldiarekin?

-. Kolpearen denuntzia egitea logikoa iruditzen zait, oraindik ere belaunaldi horretako jende asko dagoe-lako bizirik. Zorrik? 1956an PCEk eskatutako adiskidetze nazionala eta trantsizioan emandako amnistia orokorra- rekin iragana lurperatu zen, baina horrek ez du esan nahi ez dela existitu.

Madrilgo Kongresuan altxamendu militarra kondenatu eta PP kondena honen aurkako joera izateak frankismoaren atzapar-kadak pairatu genituenak mindu egiten gaitu, baina neurri batean azalpen bat du: PPko guztiak ez dira frankistak, baina frankista gehien-gehienak PPkoak dira.

• Lehenengo momentuan Araba frankisten esku geratu zenez, hemen ez zela ez gerrarik ezta erresistentziarik egon ez al digute sinestarazi?

-. Bai, ideia hau zabaldu da askotan, eta hori ez da egia, inolaz ere. Uztailaren 18ko gauean abertzaleek ezkerreko indarrekin

bat egin, eta altxamenduaren aurka borrokatzeko armak eskatu zituzten.

Zer gertatu zen? Gobernado-rea, Navarro Vives Jauna, oso motela zela eta ez zuela behar adina kemen eta ausardiarik izan egoerari aurre egin eta hiritarren nahiari erantzuna emate-ko.


• Orduan horrek esan nahi du Arabako biztanleriaren gehiengoa ez zela faxisten aldekoa, ez zegoe-la Bizkaia edo Gipuzkoako egoerarekin alde handia, ezta?

-. Horixe. Gerra hasi zenean, uztailaren 18an eta batez ere 19an, errepublikaren aldekoek kaleak hartu zituzten eta erreke-teak eta falangistak etxean gordeta geratu ziren.

Are gehiago, altxamendua irabazle atera zenean, Millan Astray Gasteiza etorri zen eta aurkitu zuen giroa ez zitzaion batere gustatu. Herri epelagorik ez zuela sekulan ikusi esanez alde egin zuen nahiko haserre.

• Eta gerraostean?

-. Gauza, bera. Klandestinitatean faxistak



36ko Gerra eta ondo-
rengo 40 urteko dikta-
durari buruz asko
dakien gizon batenga-
na jo du GEUK sasoi ilun
horren inguruan min-
tzatzeko. Jose Antonio
Martinez Mendiluzek
“Historia de la Resis-
tencia Antifranquista en
Alava, 1939-1967” libu-
rua -gaur hilda dagoen
bere anaia Luisekin
batera prestatua- argi-
taratu zuen iaz. Marti-
nez Mendiluze anaian
kontakizun hurbilak bat
baino gehiago harritu-
ko du, batez ere orain-
dik Araban gerrak ez
zuela eraginik izan
sinesten duten horiek.
Egungo politikari buruz
hitz egiteko gogorik ez
du Jose Antoniok -kase-
tea piztuta behintzat-
baina duela 60 urteko
gertakariez sentimendu
handiz aritu da.

kanporatzeko lan handia egin zen. Altxamendua garaile atera eta berehala benetako errepresio latza bizi izan zen Araban. Ez agian Nafarroan adinakoa, zeren Araban errepublikarekin konprometitutako asko -abertzale, komunistak, sozialista eta anarkistak- honek kontrolatutako guneetara pasatu baitzen. Lehen egunetan erraza izan zen, gune errepublikarra oso gertu zegoelako eta oraindik kontrolik ezarri ez zelako. Ez da ahaztu behar orduantxe Arabako zati bat Euzko Jaurlaritzaren agintepean, Agirre Jaunaren agintearen pean, egon zela. Errepublikaren aldeko indarrak Burgelura iritsi ziren, Miñaora...

• **Erresistentzia aktiboa egon zen, beraz, Gasteizen eta Araban?**

-. Aktiboa oso! Eta erregimenaren kontra aritutako guztiak hiltzeko arriskuan egon ginela gogoratu behar da. Boterearen aurkako mugimendurik txikiena terrorismotzat jotzen zen eta heriotza zigorra indarrean zegoen.

Kartzelara joateak beldurra ematen



"PPko guztiak ez dira frankistak, baina frankista gehien-gehienak PPkoak dira"

zigun, baina komisaldegiko 72 orduak infernurako bidaia ziren. Errepresio gogorra bizi izan genuen, baina boterearen aurkako borroka ez zen eten. Araban frankismo garaia erabat lasaia izan zela esaten dute batzuek, baina ez da egia. Inolaz ere. 1967an abertzaleen aurkako sarekada handi xamarra izan zen Gasteizen: berrogeitik gora lagun atxilotu

zituzten, hortik zenbait libre utzi eta hogeita zazpi komisaldegira; gorriak ikusi zituzten! Behin-behinek askatasunean utzi bazituzten ere epaiketa baino lehen Iparraldera jo zuten batzuek, zigorra handia izango zela zabaldu baitzen. Boterearen xedea jendea izututa izatea zen.

• **Gerra garaian eta ondoren faxisten aurkako guztiak elkarrekin ibili zineten, liskarrik gabe?**

-. Bai eta pozgarria da. Oraindik ere garai hartako abertzaleek eta ezkerzaleek hori dugu amankomunean, gerran eta ondorengo 40 urteetan elkarrekin aritu ginen-eta askatasunaren alde borrokan; Euskadiren askatasunaren alde eta Espainiarenaren alde ere bai. PPkoekin ez dugu ezer amankomunean. PPko guztiak frankistak direnik ere ezin esan daiteke, baina batzuek malenkolia dezente dutela argi dago.

• **Nola bildu zenituzten liburuan kontatutakoak?**

-. Liburua anaia Luis eta bion artean idazten hasi ginen eta guk geuk 60



Jose Antonio Mtz. Mendiluze

- ✓ 1919an jaio zen Labrazan.
- ✓ 1936an Beranturitik bidali zuten, deserriratuta, Gasteizera.
- ✓ Tertanga, Durruma Donemiliagan, Urduña, Beranturi, Amurrio, Lizarra inguruan eta Gasteizen aritu zen irakasle.
- ✓ Luis zuen anaia. Errepublikarrak biak. Azañistak. 'Izquierda Republicana'ko kideak. Diktaduraren aurkako borrokalari nekaezinak
- ✓ Bi anaiek parte hartu zuten CNT eta Arabako Alderdi Komunista-ren fundazioan.
- ✓ Luis anaiarekin batera "Historia de la Resistencia Antifranquista en Alava, 1939-1967" liburuaren datuak bildu zituen. Argitaratu berak bakarrik argitaratu behar izan du liburua, anaia duela hamar urte hil baitzen.
- ✓ Bigarren liburu bat idaztea pentsatzen ari da, 70 hamarkadako borroka sindikala eta grebaldiak hartuko lituzkeena.

ZENBAIT DATU

• **MILLAN ASTRAY** (argazkia) (1879-1954). Legioaren fundatzailea eta frankismoaren jenerala. Gerra Zibilean Frankoren aholkularia izan zen.

• **ERREKETEA.** Alderdi karlistak 1931an sortutako erakunde militarra. Espainiako Gerra Zibilean nazionalen alde borrokatu ziren.

• **MAKIAK.** Frankismoaren kontrako gerraosteko gerrila-mugimendua.

E.B.Z.



urtetako historia luzea daukagu, gainera klandestinitatean lan egin zuen jendearekin harreman estua izan dugu beti. Aspaldian hasi ginen gertaerak biltzen, oso ondo ezkutua izanik idatzitakoa; adibidez, liburutetan, orrialde bateko izkinean disimulaturik, data bat eta jazoera gogoratu ahal izateko hitz pare bat idazten genituen. Horretaz gain, herrietara jo nuen zaharrek hitz egitera, garai horretako egunkariak irakurri eta esaten ez zutena lurpetik ateratzen saiatu...

• **Gasteizen eman al zenuen gerraoste guztia?**

-. Bai. Ni irakasle izandakoa naiz eta Gasteizen zein zenbait herritan ere lan egin izan dut, baina Gasteiz izan da beti nire erreferentzia. Hemen nuen klandestinitatean lan egiteko koadrila.

• **Nola antolatu ohi zineten?**


-. Zeluletan antolatuta lan egiten genuen. Gurea Juventudes Socialistas Unificadas-eko kideok osatzen genuen -sozialista eta komunistak-, baina bestela zelulek laupabost kide baino ez zituzten eta taldeen arteko harremanik ez

zegoen. Batek bakarrik ezagutzen zuen Komiteko pertsona bakarra. Honen guztiaren arrazoia atxiloteki begirako segurtasuna zen...

• **Kartzelan egon al zinen?**

-. Ez, baina gertu egon nintzen behin. Lagun baten emaztea etorri zen hura eramane zutela esatera... Nik hor-atzamarraz seinalatuz-, atzeko liburutegi horretan, materiala nuen eta lanera joan aurretik ikatz-berogailura bota nuen den-dena. Poliziak ez zuen ezer aurkitu. Ezin izan ninduten espetxeratu, baina komisaldegian 72 ordu

"Uztailaren 18ko gabean abertzaleek ezkerreko indarrekin bat egin, eta altxamenduen aurka borrokatzeko armak eskatu zituzten"



Historia de la resistencia antifrancquista en Álava. 1939-1967. Capítulo III

Jordano Ordo	Durán (Tr.)	29/08/36	
José Velasco	Durán (Tr.)	29/08/36	
Tomás Soto	Zambrana	31/08/36	
Alonso Lete	Zambrana	31/08/36	
Felipe Pérez	Zambrana	31/08/36	
Isaac Puente Amestey	Maestu	CNT	31/08/36 Delg. O. P. (San)
Manuel Arredondo	Logroño	Már.	05/09/36 J. M.
Martín Aspiroz Díez	Vitoria	CNT	05/09/36 Delg. O. P. (San)
Primitivo Herrero Rubio	Vitoria	PSOE	05/09/36 Delg. O. P. (San)
Arturo Aguirre Le. de Britas	Vitoria	PSOE	05/09/36 Delg. O. P. (San)
Miguel Garro Barandiarán	Gambos (Zuma)		07/09/36
Antonio Berro Martínez	Labastida	CNT	07/09/36 Delg. O. P. (San)
José Martínez López	Labastida	Rep.	29/10/36 Delg. O. P. (San)
Felipe Ochoa González	Labastida	Rep.	29/10/36
Andrés Alonso Martínez	Vitoria		31/10/36
Bonifacio Ramos Ruiz	Vitoria	UGT	11/11/36 Delg. O. P. (San)
Borlén Madariaga Cuellar	Vitoria		11/11/36 Delg. O. P. (San)
Francisco Juaristi	Vitoria		11/11/36 Delg. O. P. (San)
Benigno González Quevedo	Santander	Mitr.	12/11/36 J. M.
Francisco Martínez Martínez	Bilbao	Mitr.	12/11/36 J. M.
José Dorroncero Viana	Maestu	CNT	12/11/36 Delg. O. P. (San)
Félix Enríquez Lapuente	Maestu	CNT	12/11/36 Delg. O. P. (San)
Vicente Gutiérrez Guealett	Vitoria	PCE	12/11/36 Delg. O. P. (San)
Luciano San Miguel Lasata	Vitoria	I. R.	12/11/36 Delg. O. P. (San)
Francisco López Muria	Nauclera		12/11/36 Delg. O. P. (San)
Félix Ochoa Fernández	Nauclera		13/11/36 Delg. O. P. (San)
Antonio García Lorenzen	Vitoria	I. R.	22/11/36 Delg. O. P. (San)
Eleuterio Rojas San Germán	Labastida	Rep.	22/11/36 Delg. O. P. (San)
Félix San Germán Ruiz	Labastida	Rep.	22/11/36 Delg. O. P. (San)
Benigno Ramírez Sáez	Vitoria		17/01/37
Eugenio Ayuso Brevo	Labastida	CNT	18/02/37 J. M.
Tamayo Bazán Fernández	Foronda		20/02/37 J. M.
Tomás Gil de Zárate Sáez	Vitoria	I. R.	31/03/37 Delg. O. P. (Pel.)
Manuel Colás Aguilu	Vitoria	U. R.	31/03/37 Delg. O. P. (Pel.)
Edmundo Colás González	Vitoria		31/03/37 Delg. O. P. (Pel.)
José Luis Abaunza Pérez	Vitoria	PNV	31/03/37 Delg. O. P. (Pel.)
Manuel Hernández Ibáñez Garay	Vitoria		31/03/37 Delg. O. P. (Pel.)

ETA GEHIAGO...

Uztailaren 18ko gaua emozio handiz gogoratzen du Jose Antoniok: 400 bat gazte Florida parkean altxamenduaren kontra borrokatzeko armak eskatzen; komunistak eta nazionalistak elkarrekin errepublikaren alde, frankismoaren kontra... Errepresioa elkarrekin biziz...

EAJ errepublikaren alde borrokatu zela argi utzi nahi du Jose Antoniok.

Tropa errepublikarrak Gasteiza heltzeko zorian egon ziren. Buruaga, Barrikao, Gopegi, Elosu, Miñao, Oto Barren eta Oto Goieneraino -aurrelari-talde bat- iristea lortu zuten. Traizio bat, buruetako batena, egon omen zen, eta ezin izan zuten aurrerago egin. Jose Antoniok dioenez, hemengo gobernadorea Bilbokoa bezalakoa izan balitz, azkarragoa, tropa errepublikarrak irits zitezkeen ez bakarrik Gasteizeraino, baita Mirandaraino, Logroñoraino... ere, eta gerraren bilakabidea oso bestelakoa izango zatekeen.

1947an lehenengo greba orokorra egin zen Gasteizen Alderdi Komunistak eta EAJk bultzatua -antolatuak zeuden partidu bakarrik-. Aipatzekoa da AJURIAK, orduko lantegirik




indartsu eta garrantzitsuena, patroï nazionalistak zituen, bat egin zuela grebarekin eta berau kemenez bultzatu. Nazionalisten detentzioak izan ziren.

Bere anaia kartzeleratu zuten -1967an-, alde batetik, argitalpen eta propaganda "subertsiboa" izateagatik -Luisek buzoian sartu ziotela esan, baina...-, eta bestetik, Itsasondoko alkateak -gobernadore zibilek ezarriak ziren alkateak- eskolan euskarazko kantak irakasten zituela leporatzeagatik. Luisek bazekien euskaraz mintzatzen, han eta hemen ikasi ahal izan zuen-eta; Jose Antonio, ordea, ezin... Zertxobait badaki, baina pena handia ematen dio gehiago ez jakiteak.

Garai horretan edozein paper propaganda subertsiboa zen, eta kartzelara joateko arriskua zekarren.

E.B.Z



kartzelan, 67. urtean izan zen...

"Arabian frankismo garaia erabat lasaia izan zela esaten dute batzuek, baina ez da egia. Inolaz ere"

eman nituen eta gogorra izan zen oso. Luis anaia, aldiz, kartzelaratuta zuten sarekada horren ondorioz. Itsasondon zegoen irakasle eta ezin izan genion abisua pasa. 18 bat hilabete egon zen

• Klandestinitate garaiko gertakari bitxi asko izango dituzu kontatzeko...

- 58. urtean, adibidez, pintadak egitera irten ginen batean, Luis eta bioi kanposantuko hormetan egitea tokatu zitzaigun. "Abajo el franquismo", "Gora Euskadi Askatuta" eta "Viva la República" jarri genuen letra beltz handiz eta joatean udaltzain pare bat zetozela konturatu ginen. Anaiak besarkatzeko agindu zidan, eta udaltzainak begira geratu ziren arren bikote bat ginela uste izan zuten, eta

bakean utzi gintuzten.

Beste batean, Arriagara eramane behar izan nuen makien jeneral bat. Haruntza gindoazela polizia armatuaren bi kide ikusi genituen. Egoera salbatzeko soro lanetan ari zen nekazari batekin hizketan hasi nintzen: "Zer moduz? Ez al haiz nirekin gogoratzen? Hire anaiari klase eman nion. Baietz ba, motel". Gixajoak azkenean baietz esan zidan eta han egon ginen berarekin hizketan polizia urrundu zen arte. Irudimena behar izaten zen...

Leire Lpz. de Aberasturi.

Edorta Sanz - Geu Gasteiz Artxiboa.



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida 35 – Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ


**LEIRE,** (11 urte)

"LEIREREN ISTORIOAK"

Leire, boligrafoa hartu, eta paperean berak sortutako abentura eta istorio ezberdinak kontatzen saiatzen da. Bere ipuinetan abentura eta fantasia guneak oparoak dira, baina noizbehinka beldurrezko kontakizunak ere egitea du gustuko. Neska-mutil gazteak, fantasiatzko pertsonaiak... ditugu narrazio hauen protagonistak.

Momentuz idaztea gogoz hartzen du, baina aurrera begira ez du bere burua Bernardo Atxaga bezalako idazle baten modura imajinatzen, oso zaila ikusten baitu.

Dena den, istorioek amaiera ona izatea nahiago du; hau da, "ezkondu eta handik aurrera zoriontsu bizi ziren".




SORGIN ON BAT GASTEIZEN

Egun eguzkitsu batean Nafarroan bizi zen sorgin batek Arabara joatea erabaki zuen. Arabako herri guztiak ikusi ondoren Gasteiza joan zen. Gasteiz oso hiri polita zen eta oso handia ez izan arren gauza bitxi asko zituen. Sorgin hau ez zen Gasteiz bezain polita, baina oso ona zen eta oso eskuzabala. Sorginak Lorea zuen izena. Oso argala eta altua zen. Ile luzea zuen eta kriston sudurra. Magia egiten zuen eta gauzak desagertarazi eta agertarazi egiten zituen. Gasteizko Dato kalean neska bat bizi zen bere zortzi anaia-arrebekin. Bere gurasoek ez zuten dirurik eta oso gaizki pasatzen ari ziren. Familia honek ez zeukan janaririk eta bakarrik hamabostean behin dutxatzen ziren. Loreak dirua utzi zien ohe gainean, familia horri laguntzeko. Hortik aurrera sorgina kalez kale eta plazaz plaza joaten hasi zen beste familia batzuk laguntzen. Honela, Dantzari plazara joan zen eta han beste arazo bat konpondu zuen. Hor emakume bat zegoen ohean etzanda. Oso gaixorik zegoen. Loreak poltsikoan zeuzkan hauts magikoak atera eta beraren gainean bota zituen. Hitz magikoak esan zituen eta minutu bat pasa ondoren emakumea sendatu zen. Alkateak Gasteizen bizitzen gelditu ahal zen galdetu zion. Loreak baietz esan zuen eta hortik aurrera norbaitek arazo bat duenean Loreari deitzen dio.

ZE TXOIO DAGOEN ORAIN GASTEIZEN!!

LEIRE. 11 urte

Zein da irak



SOFIA, (5 urte)

“Mari Errauskin”, hemen printzesari oinetakoa erortzen zaio eta amaitzen du printzearekin ezkontzen. Beste ipuin polit bat “Loti ederra da”, eta pertsonaiak sastatzen du behatza...



DANIE

“Pabli
liburu
eta zo
zaidan
hemen
baina

kurri duzun azken ipuina?

IEL, (6 urte)

olito" izan da irakurri dudan azken
ua; mutil honek animalia asko dauzka
zooa joaten da. Niri gehien gustatzen
ana, berriz, "Quique eta Trufo" da;
engo pertsonaia gaixorik jartzen da
a azkenean sendatzen da.



JOSUNE, (5 urte)

"Txanogorritxu", ipuin
honetan pertsonaia neska
txiki bat da. Bere arropa
guztia gorria da eta bere
amonarekin jatera joaten da.

OLENT ZEROK EKARRIKO

**JOSTAILU DENDA (GOAZEN BARRURA).
TTARTALO-1999**

Norentzat nahi du Anek oparia? Zabald
jostailu dendako ateak eta erantzuna
aurkituko duzu...

Ez da komenigarria 3 urtez azpikoentzat
pieza txikiak dituelako.

Bilduma honetako liburuak: Eskola txikia, Jostailu
denda, Garaje txikia, Baserria.




**USOA. HEGAN ETORRITAKO NESKATOA.
PATXI ZUBIZARRETA eta ASUN BALZOLA.**

Siberia treneko ipuinak. EREIN-1999.
8-88 urte bitartekoentzat.



**ANIMALIEN INAUTERIA. FELIPE JUARISTI.
AUSKALO BUMERAN, EREIN-1999.**

12 urtetik aurrera.



**BASARRI. ANDONI EGAÑA. TXIRRITA
SAILA, SENDOA-1999**



ITSASOAN ZEHAR IBILIZ.

Tren-makina sorta, Librifer-1998



**JONAS ETA HOZKAILU BELDURTIA.
JUAN KRUIZ IGERABIDE.
MENDI SORGINDUA, AIZKORRI-1998.
MARRAZKIAK: MIKEL VALVERDE**

Lehen irakurleak
1998ko "Euskadi" Literatura Saria.

axular
LIBURUDENDAren
eskutik



"Bizikletarekin munduaren azken ertzeraino"

KOLDO FERNANDEZ DE LARREA.

Txirrindularia



Hemezortzi urte bete berriak izan arren, gasteiztar euskaldun honek txirrindularitzan sekulako ibilbide arrakastatsu baten zama jarraia bizkar gainean jadanik.

Afizionatu mailan Espainiako Txapelketa irabazi zuen aurreko denboraldian, eta oraingo atsedenaldia aprobetxatuz galderatxo batzuk egin dizkiogu, geroago ez baitugu harrapatuko-eta.

• Noiz hasi zinen txirrindularitzan? Zerk bultzatu zintuen ondoren jarraitzera?

-. Bizikleta gainean hasia kasualitatezkoa izan zen. Hamaika urterekin Araiako lagun batzuekin ibiltzen nintzen eta haiek txirrindularitzan hasiak ziren dagoneko. Batzuetan beraiekin irteten nintzen ibiltzera, eta egia esanda, noizean behin irabazi ere egiten nien. Beraiek animatuta, klubean izena eman nuen eta orain arte.

• Ordutik zazpi urte iragan dira jada, tartean pauso tinkoak eman dituzularik... Zeintzuk izan dira orain arte zure karrerako unerik inportanteenak?

-. Kadete mailan Euskadiko txapelduna izan nintzen Cafés La Brasileña taldearekin eta Arabako Itzulia eta Aiarakoa ere irabazi nituen. Pasa den urtean, afizionatu mailan, Euskadiko Txapelketa lortu nuen eta baita Munduko Txapelketa Aurrekoa ere. Aurrean, Bacomat taldean, azken garaipen hau berriro egin dut; hori eta Espainiako Txapelketa ira-

bazi izana izan dira unerik gozoenak.

KIROLAREN ERAKARGARRITASUNA

• Txirrindularitzan karrera miresgarria, baina zer moduz tartekatzen dira ikasketak eta maila honetako kirola?

-. Orain arte ondo eraman ditut bi jarduerak; aurrean

"Momentu honetan nire xedea maila profesionalera iristen da"

SHEE ikasten ari naiz. Halere, egia da afizionatu mailak arreta gehiago behar duela eta horrek eragina izan dezake nire ikasketetan. Kirolaren mundu honetan erori edo lesionatzeak atzean gelditzea dakar; ikasketak uztea oso arriskutsua da. Horregatik, biak aurrera ateratzen saiatuko naiz. Denboraldian hiru ordu eta erdi entrenatzen dut, gutxi gora-behera, baina gustatzen zai-zunean, gogorra izan arren, ondo eraman daiteke.

----- KOLDO FERNANDEZ DE LARREA -----

- ✓ Gasteizen jaioa duela 18 urte.
- ✓ SHEEn ikaslea dugu.
- ✓ Araiako lagunekin hasi zen bizikletaz ibiltzen.
- ✓ Kadete mailan Euskadiko txapelduna "Cafés La Brasileña" taldearekin.
- ✓ Afizionatu mailan Euskadi eta Munduko txapelketak eskuratu zituen.
- ✓ Iaz Afizionatu mailan Espainiako txapelduna.

"Kirolaren mundu honetan erori edo lesionatzeak atzean gelditzea dakar"

• Espagetiak gorrotatzera iritsi al zara?

- Bai. Denboraldian zehar egunero jaten dut pasta. Pasta gosaltzeko eta pasta afaltzeko. Lehen espagetiak ziren nire janaririk gogokoena... Orain ez.

• Kirola zure bizitzaren parte garrantzitsua da. Zer-nolako papera izan beharko luke kirolak gazteen bizitzan?

- Kirola oso garrantzitsua da. Jendea animatu behar da kirola egin dezan, praktikatu arte ez da jakiten zein onuragarria den.

• Zer moduz portatzen dira nerbioak lasterketa inportante baten aurrean?

- Oso gaizki pasatzen da. Ni urduri jartzen naiz, baina badago jendea nerbioek eraginda ultzera izatera iritsi dena. Onenentzat ere urduritasuna oso arazo latza da, nerbioak zutaz jabetzen baitira. Hori bai, zenbat eta lasterketa gehiagotara joan hainbat eta arazo gutxiago egoten da; ohitura kontua da. Hala ere, nire ustez, urduritasuna ez da inoiz galtzen.

HELBURUA: TONTORRA

• Nola ikusten duzu zure burua urte batzuk barru? Zein da zure helburua ziklismoaren munduan?

- Momentu honetan nire xedea maila profesionalera iristea da. Gero ikusiko da, baina noski, ahal bezain hoberen egiten saiatuko naiz. Hala ere, ondo dakit ez dela erraz eskura daitekeen helburua, txirrindularitza ez da futbola. Kirol honetan txikitzen edo gaketan oso ondo ibili arren gero irten ez den jende asko dago. Gauza aurrera egitea da, bidean ez gelditzea. Zorteak ere paper garrantzitsua dauka.

• Gora iristea zaila bada ere, azken urteotan euskaldunak bizikleta munduaren tontorrean aski ondo moldatzen dira. Zeri zor zaiola uste duzu?

- Euskal Herrian zaletasun handia dago, eta ondorioz beste herri batzuetan baino txirrindulari gehiago. Horrexegatik gehiago izango dira goraino iritsiko direnak ere.

• Jakina da oso dopingak zuenean duen lekua. Txirrindularitza kirolarien ahalmenetik harago joaten ari al da?

- Nire ustez, EPOren arazoa aurki desagertuko da, horretarako gero eta kontrol ugariago daude-eta. Baina, bai, gauzak eskuetatik joan zaizkigu. Jendeak gero eta mendate gehiago



nahi ditu, eta zeinek jasan dezake hogeie eguneko lasterketa bat amore eman gabe? Nire mailan dopinga ez da arazoa, baina profesionaletan bai, eta nork du errua? Urteekin, kontrolak honekin bukatuko dutelakoan nago.

• Zer egiten du Koldok bizikleta gainean edo ikasten ez dagoenean?

- Batez ere lagunekin egotea atsegin dut, eta jakina, mendira joatea ere bai. Nire adineko jende gehienari bezala, hortik irtetea gustatzen zait.

 **Ainhua Ferron**
 **Edorta Sanz eta artxibo.**



ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

**ZORIONAK ETA
URTEBERRI ON
HARPIDEDUN GUZTIEI!!**

GABON HAUETAN GURE HARPIDEDUNEN ARTEAN

EROSKIREN ESKUTIK **BI OTZARA**

ZOZKETATUKO DITUGU... GALDERA HONEN ERANTZUN
ZUZENA BIDALTZEN DUZUEN GUZTIEN ARTEAN...

ZORTE ON!

NOLA DA EUSKARAZ... Plaza de la Virgen Blanca?

BIDALI ERANTZUNA LEHENBAILEHEN GURE HELBIDERA
(3. orrialdea). ERANTZUNAREKIN BATERA EZ AHAZTU ZUEN
DATUAK ETA TELEFONOA JARTZEA.

Geu Elkartearen ekimenak

Lagun ugari bildu zen azaroaren 11an Geu Elkartea, Bagare eta Euskadiko Errepublika Arabiar Saharar Demokratikoaren Lagunen Elkartearen eskutik izandako "Mendebaldeko Sahara. Bake prozesua eta esperientziak" gaia zuen hitzaldi eta diapositiba emanaldian. Hurrengoan gehiago, adi egon!

Azaroaren 13 eta 20an GEU ELKARTEAK Florida Kultur Etxean antolatu "Euskararen boluntarioentzako ikastaroa"ren balorazio positiboa egin da. Bertaratutako boluntario taldea handiegia izan ez bazen ere, bildutakoekin lan polita egin ahal izan zuten Iñaki Arruti eta Arkaitz Illarramendi irakasleek. Soziolinguistikaren inguruko oso gai interesgarriak ikutu ziren: nola egiten den pertsona bat hitzun, zer den hizkuntz ekologia, euskara zer den; klasikoa edo etnikoa, edo beste zerbait..., besteak beste. Ikastaroari hasiera berezia eman zitzaion, Plisti-Plasta taldearen eskutik antzerki obra batez gozatu ziren-eta boluntarioak, "ni naizena naiz, euskalduna naiz...".

E.B.Z

ETXERA



Hilaren 22an Principal Antzokian SENIDEAKen ETXERA gala artistikoa -antzerkia, dantza...- ikusteko aukera izango da. Ekitaldi honetan bildutako artistek bat egiten dute euskal presoen Euskal Herriratzearekin, eta, besteak beste, honako hauek dira esku hartuko duten artistak: Pikor, Patxi Biskert, Latirili, Bekereke, Pantha Rhei, Karmele Perez, Carmen Santesteban, Trasposos Danza, Tarima Danza, Detritus Teatro, La Patro Teatro, Mikel Gomez de Segura, Txintxu, Sobradun, Ñake, Unibertsitateko antzerki aula, transformistak...

E.B.Z.



GEUREKIN MENDIRA

Noiz: Abenduaren 19an
Irteera: Goizeko 9:30etan Prado kalean.
Itzulera: 15:00ak aldera
Tfnoa.: 945 13 27 58 (TXIPI)

ANBOTO



ITURRIETA

Sagardotegia

**NEGUAN
BERO-BERO!**


Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO




Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

Abian da Euskal kale izendegiaren aldeko bigarren kanpaina



Gasteizko Udal Batzak aurtengo martxoan onartu zuen kaleen euskal izendegia. Udal Gobernuaren onespena lortu zuen Geu Elkartearen ekimen honen bidez, udaberriaz geroztik Gasteizko kaleen euskarazko izenak ofizialak dira. Orain beste pauso bat eman nahi du Geu Elkartek: batetik, euskaldun guztiek kaleen euskal izendegia ofiziala dela jakinda, euskarazko grafiak eta izenak erabiltzea; eta bestetik, euskal munduan mugitzen diren erakundeek euskal izendegia erabiltzeko konpromisoa hartzea. Geu Elkarteko kidea den Xabier Galarragak azaldu dizkigu kanpaina berri honen inguruko xehetasun guztiak.



Xabier Galarraga

• Kaleen euskal izendegia ofizialtzeko lan handia egin behar izan zenuten, baina merezi izan du, ezta?

-. Bai, noski. Bere garaian, Geu Elkarteko kideak diren Patxi Salaberriak, Txipi Ormaetxeak eta Iñigo Kastresanak kale-izendegia prestatu zuten, Udala eta Euskaltzaindiarekin batera. Baina, nolabait, lan teknikoa egin ondoren gelditua egon zen Udalean hiruzpalau urtez. Zorionez, azkenean Cuerdo jaunak kargua uztera zihoanean izendegia ofizialdu zuen.

• Zer-nolako garrantzia izan du kaleen euskal izenak ofizialtzeko?

-. Batetik, hemendik aurrera argitara daitezkeen dokumentu, mapa, plano eta abarrekoak euskaraz jarriko dituztela azpimarratu behar da. Eta bestetik, jendeak jakin behar du leku ofizial eta pribatu guztietan badagokela aukera gure helbidea euskaraz jar dezaten exijitzeko. Hau da, joan


"Bai leku publiko bai pribatuetan guk eska dezakegu helbidea euskaraz agertzea, ofiziala baita euskarazko izena"

gaitezkeela NANA ateratzera eta helbidea euskaraz jar dezakegula. Ez digute erraztasun gehiegirik emango, baina posible da egitea. Izan ere, leku ofizial askotako ordenagailuetan erdarazko grafia izango dute "por defecto", baina guk eska dezakegu euskaraz agertzea, ofiziala baita euskarazko izena.

• Behin kale izendegia ofiziala izanda, hori ezagutaraztea izan zen hurrengo pausoa, Udalaren Gazetaren bitartez.

-. Bai, baina ez zen batere praktikoa izan, tamaina handikoa baitzen.

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

vitrales



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



Aiztogile kalea

Beraz, lortu behar da haiek edo guk argitaratuta askozaz erabilgarriagoa den formatu batean ateratzea. Liburuxka baten tamainakoa, erraz kontsultatzeko modukoa.

• Eta orain kanpaina berri bat jarriko duzue martxan, zertan datza kanpaina berri hori?

-. Alde batetik, kanpaina maila pribatu batera zabaldu, eta bestetik, euskal munduaren inguruan mugitzen diren erakundeetara iritsi nahi dugu. Eta "euskal" diodanean azken batean da indarrak optimizatu edo aprobetxatu behar direlako. Ez dugu planteatuko, esaterako, Telefonikak bere fitxero guztiak euskaratzea, hori ezinezkoa dela baitakigu, baina bai AEK-k edota Euskaltel-ek egitea, adibidez. Bestetik, lortu nahi dugu errespetatzea, guk hala eskatzen dugunean, edozer gauza euskarazko helbidera bidaltzea.

"Zorionez, azkenean Cuerda jaunak kargua uztera zihonanean izendegia ofizialdu zuen"

• Eta zein izango da kanpainari ekiteko emango duzuen aurreneko pausoa?

-. Hainbat erakunderi euren fitxeroak aldatzea, euskaratzea, planteatuko diegu. Jakin badakigu horrek lan konkretu bat suposatzen duela, baina ez da horrenbesterako. Alderdi Politikoa batentzat, adibidez, bere afiliatuen fitxeroak euskaratzea bizpahiru orduko kontua baino ez da. Gainera, badakizu hortik aurrera bidaltzen dituzun gutun guztiak euskarazko izenarekin joango direla, eta hori abantaila bat da.

• Norengana joko duzue izendegia erabiltzeko konpromisoa har dezan?

-. Batez ere erakunde pribatuengana joko dugu. Era horretan euskaldun batek erakunde hauetan bere helbidea euskaraz jar diezaiotela eskatzen



Barrenkalea behar zuen izan

badu, eskaera hori errespetatu diezaiten. Bestetik, Alderdi Politiko, Sindikatu, egunkari eta aldizkariak, Unibertsitateko Dekanato edo Fakultateak, eskola, euskaltegi, guraso- elkarte eta baita euskal taldeak ere (Bagare, EHE...) gure eskaera luzatuko diegu.


• Nola gauzatuko duzue kanpaina berri hau?

-. Aipatu erakunde eta abarri, pertsonalki edo eskutitz baten bidez materiala bidaliko zaie hile honetan: txostena eta diskete bat izendegi osoarekin. Hori bidali, eta eskatuko zaie hilabeteko epean erakunde bezala bere onespena eta izena ematea. Horrekin batera, izendegia formatu txikian argitaratzen ere saiaturako gara ordurako.

 **Edurne Begiristain**
 **Edorta Sanz - Artxibo**

OFIZIALA IZANIK, NON EXIJITU DEZAKEGU EUSKARAZKO HELBIDEAK AGERTZEA

- ✓ Posta Zerbitzuan
- ✓ Gobernu Zibilean (NAN, Pasaportean...)
- ✓ Trafiko Ordezkaritzan
- ✓ Norberak eskatuta, edozein agiri, paper, kontratu... egiterakoan: notarioarenean, abokatuarenean, EROSKI, TUVISA...



GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako... behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKA

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2

TFNO. 143883



GASTEIZ

"Itzultzaile batek zehatza izan behar du hizketan eta eguneroko bizitzan"

Iñaxio Lpz. de Arana

- ✓ Gasteizen jaioa duela 34 urte.
- ✓ Euskal Filologia ikasi (gehiena erdaraz) eta sei urte geroago Itzulpengintza Masterra egin zuen.
- ✓ Ikasprozesuaren zatirik handiena erdaraz burutu zuen, eta UBI bukatu eta euskara hobetzeari ekin zion.
- ✓ Egun, IKAn eta Gizearte Etxe batean euskara irakasten du.
- ✓ Iaz JOKIN ZAITEGI itzulpen saria eskuratu zuen (bere anaiarekin batera), "Etnogenesia, akulturazioa eta hizkuntzen arteko kontaktuen garrantzia" liburuagatik.

Duela zazpi urte itzultzaile lanetan hasi zen Iñaxio Lopez de Arana gasteiztarra. Orduraz geroztik bi liburu itzuli ditu euskarara, beti Marce, bere anaiaren laguntzarekin: 1997. urtean "Giza Faktorea" eta aurten, berriz, "Manhattan Transfer". Itzulpengintzaren munduaz hitz egin dugu Iñaxiorekin.



ratzen egon da, nahiz eta lehenengo lanean nire izena soilik agertu. Oraingo honetan, berriz, lana zailagoa izan denez gero, ia-ia erdibana itzuli dugu. Hortaz, azkenengo lan hau bion izenean argitaratuko da.

• Zer dela eta hasi zinen itzultzaile gisa?
-. Duela zazpi bat urte Arabako Foru Aldundiko Agiritegian lanean nembilela konturatu nintzen ez nintzela egiten ari nik benetan gustuko nuena, alegia, euskararekin loturiko zerbait. Orduan

nire sustraletara bueltatzea erabaki, eta Itzulpengintza Masterra egin nuen. Eta halaxe hasi nintzen mundu honetan.

• Eta orain artean bi liburu itzuli dituzu, biak zure anaiaren laguntzarekin...

-. Bai, nire anaiaren laguntza oso estimagarria izan da. Izan ere, bi liburuak ingelesez zeuden eta nire anaia ingeles filologoa denez, nire lanak gainbegi-

• Aipatutako liburu bi horiek itzultzeaz gain, beste asko zuzendu dituzu, ezta?

-. Bai. INFOMART argitaletxeke 10 bat liburu, eta laster beste bi gehiago. Eta bestetik, Zubia Alfaguarako beste hainbat ere zuzendu ditut. INFOMART argitaletxekeak literatur-liburuak dira, bestearenak, berriz, ikas-liburuak. Hortaz, bi esparru horiek jorratu ditut gehien bat: literatura eta irakaskuntza.

• Zuk zeuk aukeratzen al



"Hizkera berezi horiek nola eman euskaraz izan da oztoporik nagusia"

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (Kutxi) kalean

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

"Konturatu nintzen ez nintzela egiten ari nik benetan gustuko nuena, alegia, euskararekin loturiko zerbait... Halaxe hasi nintzen mundu honetan"

dituzu itzuli beharreko liburuak, ala enkargua egiten dizute?

-. Literatura Unibertsaleko lehiaketara aurkeztu beharra dago, eta noski, hura irabazi. Euskal Herri mailako lehiaketa antolatzen da zeinetan liburu bakoitzaren lehendabiziko 10 orrialdeak itzuli behar baitira. Gero, epaimahakideen ustez ondoen itzuli duenari ematen diote liburu osoa itzultzeko enkargua.

• Metodo zehatzik erabiltzen al duzu itzultzeko orduan? Zeintzuk pauso eman behar dira?

-. Hiztegi asko edukitzea inportantea da oso. Horretaz gainera, liburuak zenbat eta bertsio desberdin gehiagotan izan orduan eta hobeto.

Frantsesa, ingelesa, gaztelania, arabera... jakinez gero, hobe. Eta zilegia da beste hizkuntza batzuetako bertsioak erabiltzea baldin eta itzulpenaren kalitate ona lortzeko bada.

• Baina liburu guztia irakurri behar da itzuli ahal izateko, ala ez?

-. Guk ez dugu inolaz ere liburu osoa irakurtzen itzultzen hasi aurretik. Baina bakoitzak bere prozedura dauka.

• Zein oztoporekin aurkitu zara bi liburuak itzultzerakoan? Zer suertatu zaizu zailen?

-. Oztopoak denetariokoa izan dira. Azkenengo liburu honetan trabarik handiena izan da jatorri askotako jendea azaltzen dela, eta bakoitzak bere hizkuntza kutsua daukala, alegia, bere azentua, doinua, ñabardura bereziak... eta hori euskaraz islatzea ez da batere samurra izan. Hau da, hizkera berezi horiek nola eman euskaraz izan da oztoporik nagusia. Horretarako, zenbait azterlan egin behar izan ditugu eta laguntza bila ere ibili gara, adituei galdezka, eta guztiek asmatu beharra genuela erantzun digute. Horixe izan

da guk izan dugun lorpenik handiena.

• Kontuan izaki Euskal Herria komunitate politiko desberdinetan banatuta dagoela, itzultzaileen egoera ez da berbera izango Iparraldean, EAEn edo Nafarroan, ez da hala?

-. Halaxe da, gure herria 3 komunitate politikotan bananduta dago eta bakoitzak bere atxikipen berezia dauka euskararekiko. Dударik gabe hobekien gaudenok gara EAEn bizi garenok, eta gero naparrak. Orain arte Nafarroan itzultzaile gutxi zegoen, baina badirudi itzultzaile kopurua areagotuz dihoala. Iparraldean, ordea, itzultzaileek ez dute inolako errekonozimendurik, eta noski, itzultzaileen egoera euskararena bezalakoa da, alegia, oso eskasa.

• Administrazioan ari izan diren itzultzaileen eta autonomo gisa zabiltzatenen egoera ere oso bestelakoa da.

-. Bi mundu zeharo diferentek dira. Administrazioan ari diren itzultzaileek ez dute aparteko zailtasunik izaten bizibidea aurrera eramateko, nahiz eta euren itzulgaiak oso atseginak izan ez. Baina gure



kasara aritzen garenok batzuetan lanez gainezka gaude, eta beste batzuetan, berriz, lanik gabe. Eta horrela ezin da bizi.

• Bukatzeko, zeintzuk ezaugarri bete behar dira, zure aburuz, itzultzaile ona izateko?

-. Zehaztasun handia. Hori funtsezkoa da itzultzaile batengan. Ordenatua eta oso zehatza izatea, bai hizketan baita bere eguneroko jardueretan ere.

 **Edurne Begiristain**
Edorta Sanz

MIERKURIO-KADIMIDAN
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

CEGASA
INTERNACIONAL
ALCALINA



CEGASA
INTERNACIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia

 **Matrikula zaitetz !!**

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

XABIER MONTOIA

“LAINOAZ BESTALDE ZER EGONGO OTE?”

BERE IBILBIDEAN BARNA...

Xabier Montoiak jada musika eta literaturaren merkatuan jalgi berri ditu bere azken disko eta liburua: *Lagunak, adiskideak... eta beste hainbat etsai eta Hezur gabeko hilak*, hurrenez-hurren. Xabierrek orain dela hamar bat urte hasitako bakarkako ibilbideari jarraituz bere hirugarren disko honetan gogoeta orokorrak kantatzen ditu; betiere, aurreko lan musikaletan ez bezala, ahotsa nagusi dela. Gauzak horrela, Xabierrek, gure galderi erantzunez, bere musikari buruzko indusketa sakona egiteko aukera eskaini zigun; ez, berriz, bere literaturaren gainean.

ARGI ETA GARBI

“Literaturari buruz ez dut inoiz ezer esaten; beraz, horri buruzko galderak ez ditut erantzungo”. Elkarrizketari hasiera eman baino lehen Xabier Montoiak argi eta garbi erakutsi zuen puntu horrekin bere jarrera, baita esandakoan tinko mantendu ere. Nolanahi ere, idazle gasteiztarak literaturaren munduak, eta batez ere salmentak, jokatzen duen paperarekin desadostasuna agertu zuen.

“Gehienetan inportanteena ez da idatzitakoa, baizik eta nork idatzi duen; niri literaturaren ikuspegi hori ez zait gustatzen eta, horregatik, idazlearen nortasuna edo izaera berdin zait, inporta zaidana nola idazten duen baita”. Esandakoak esanak aurrera ekin genion.

Xabier Montoiak txikitatik erakutsi du musikarekiko arreta berezia eta oroitzapenak burura ekartzen dituela irratia aipatzen du. Bere desio handiena musikaria izatea zen. Gauzak horrela, 20

- ✓ **Izen-abizenak:** Xabier Montoia.
- ✓ **Lanbidea:** Idazle eta musikaria.
- ✓ **Jaioterria:** Gasteiz.
- ✓ **Jaiotze data:** Kalkulatu, ja, ja, ja... Zaila jarri zigun Xabierrek; batuketa eta buruhaute batzuen ondorioz ondorengo emaitza lortu genuen: 37 urte???
- ✓ **Bizitokia:** Bizkaia aldean, hor nonbait.
- ✓ **Ibilbidea:** 20 urterekin musika munduan murgiltzen da, Hertzainak eta M-ak taldeetan parte hartuz. 90. hamarkadan bakarkako lanean hasten da: Beti oporretan eta Hemen diskoak plazaratzen ditu. Bere azken sormen musikala: udazken honetan kaleratutako *Lagunak, adiskideak...* eta beste hainbat etsai. Musikan ezezik, literaturan ere aditua: Xabier Montoia genero desberdinak -poesia, kronika, eleberria, ipuinak eta narratiba- biltzen dituen liburu zerrenda luze baten egilea dugu. Bere zortzigarren eta azkenengo lanak *Hezur gabeko hilak* du izenburu.

bat urte zituenean Londresen bizitzen zegoela-eta, "punk mobidaren" zoramenaz gozatzeko premia izan zuen. Garai hartako haize berriek bere ametsa errealtate bihurtzeko aukera eskaini zioten. "Niretzat edonork lor ez zezakeen gauza zen musikari izatea; baina nirekin bizi zirenek musika egiten zuten, eta beraiek nik bezainbeste zekitela ikusi nuen. Orduan jakin nuen edonork bere talde propioa sor zezakeela". Hortaz, Xabier Euskal Herrira bueltatu eta bere taldea sortzeko irrikitan euskara ikasten hasi zen, "niretzat Euskal Herrian talde bat eginez gero euskaraz abestea ezinbestekoa zen".


"Literaturari buruz ez dut inoiz ezer esaten; beraz, horri buruzko galderak ez ditut erantzungo"

HOGEI URTEKO IBILBIDEA

Londresetik bueltan hastapenetan Hertzainak-en joz eta ondoren lagun batekin M-ak taldea sortuz, Xabier Montoiak bere lanbide musikalaria ekin zion gogoz. "Han izan ginen taldea desegin zen arte. Ondoren, batzuk Negu Gorriak-era joan ziren, beste batzuk bateria jotzera Londresera, eta azkenik bakarrik gelditu nintzen bakarka abestea erabaki nuen". Xabierren esanetan, talde berria sortzeko gogorik ez zuela oso eroso iruditu zitzaion anplifikagailua eta gitarra eskuan, edozein tokitan abestu ahal izatea; eta horregatik, hain zuzen ere, 90.eko hamarkadan bere bakarkako bideari heldu zion. "Ameriketan bolada bat pasa nuen, gero bueltan M-ak tal-

GALDERETAN

Zaila iruditu zitzaion musikari gasteiztar honi gure galdeetara. Izan ere, hainbat galderatan erantzun posible asko zeudelakoa zalantzan izan zen. Beste batzuetan, berriz, inongo dudarik gabe ihardetsi zuen.



• **Euskal Herriko zeintzuk talde gustatzen zaizkizu?**

-. Talde ugari ditut gustuko, ea ba...: Arawak, Lorrin, Tapia eta Leturia, Tapia eta Leturia Band, Tapia eta Tapia; azken finean Tapia den edozer... Iparraldeko abeslariak ezer gustatzen zaizkit.

• **Eta Euskal Herriko kanpoak?**

-. Musika beltza ikaragarri gustatzen zait, sould-a, alegia, baita klasikoa ere, modernoa... Denetarik.

• **Hortaz... zein musika mota duzu gustuko?**

-. Tangoak izan ezik, gainontzeko genero guztiak. Hala ere, musika mota bakoitzaren barruan talde zehatz batzuk besterik ez ditut gogoko.

• **Liburu baten izena?**

-. (Isiltasun handia)... Buff, makina bat daude!

• **Idazlerik?**

-. Ez daukat gustuko idazlerik, baizik eta gustuko liburuak.

• **Pelikulak etxean edo zinematan?**

-. Berez zinematan, baina askotan etxean ikustea gustatzen zait. Ni ez naiz 'masoka', pantaila handia nahiago dut, baina askotan jendeak ez dauka inongo begirunerik, eta horretarako filma nire etxean lasai lasai ikusi nahiago dut.

• **Film bereziren bat?**

-. Buff!!!..., hainbeste dago...

• **Gasteiz ala Donostia?**

-. Donostian urte askotan bizi izan naizen arren, Gasteiz, noski.

• **Zein da Gasteiz hiriarekin daukazu harremana?**

-. Maitasunezkoa eta gorrotozkoa, sentimendu beraren bi aldeak.

• **Zein da zure ustez Gasteizen dagoen aukera kulturala?**

-. Gasteizko idazle euskaldunak irakurri eta musika taldeak entzun ditudan arren, 80etako giroa besterik ez dut ezagutu. Izan ere, jada ez naiz bertan bizi eta horregatik, hain zuzen ere, ez daukat irizpiderik Gasteizko aukera kulturalari buruz hitz egiteko.

• **Ezagutzen al duzu Kantaga Lantegi Kulturala?**

-. Ezagutzen ditut bertan ibiltzen diren lagun batzuk, baina sekulan ez naiz han izan. Gogoia daukat ezagutzeko, musika munduan egiten ari diren lana oso ona dela pentsatzen baitut.

• **Noizko Gasteizen zure kontzertua?**

-. Deitzen nautenerako.



“LAGUNAK, ADISKIDEAK... ETA BESTE HAINBAT ETSAI”



Izenburu berezi honen arrazoia kantetan jorratzen den gaien ondorioa besterik ez da. Xabierren esanetan, “Ez da inori eskainitako diskoa. Adiskidetasuna eta pertsonen arteko harremanei buruz hitz egiten duten gogoeta orokor zein pertsonalak biltzen ditu lan honek”. Baina, Xabierrek orain arte lan musikal sakona egin duen arren, ahots tonu triste-an bere buruari sarritan musikari dedikatutako hogeitau urte hauek merezi ote duten galdetzen diola

adierazten du. Haatik, Xabierrek, berak hainbeste gorrotatzen duen harropuzkeria ekidituz, onartu beharra dauka kritikak bere has-tapenetatik egundaino oso ondo baloratu duela bere lan musikala. Horregatik, hemendik honako hau esaten diogu Xabierri: orain arte bezalako erritmo onean aurrera segi ezazu!!

“HEZUR GABEKO HILAK”



Xabier Montoiaren azken elebe-rriak Lehen Mundu Gerran jazo-tako istorioa kontatzen du. Fran-tziako Armadako bi soldaduren arteko harremanak, gogoetak dira lanaren zutabeak.

**“Literaturari
buruz ez dut
inoiz ezer
esaten; beraz,
horri buruzko
galderak
ez ditut
erantzungo”**

dearen garaian egindako abesti batzuk konposatuta nituen, talde-rako egokiak ez zirenak, eta horiek abesten hasi nintzen bai gaztetxeetan bai tabernetan”, aipatzen du Xabierrek, “nire lehe-nengo saioa Parralen izan zela gogoratzen dut”.

Ordutik aurrera Xabier Mon-toiak bakarka hiru disko grabatze-ko aukera izan du. “Hasierako diskoa Fermin Muguruzak eginda-ko proposizio bati esker kaleratu nuen, hala ere, bertan ez nuen nire asmoa lortu, ez bainengoen ohituta bakarka abesten”. Xabie-rrek kontatutakoaren arabera, bere bigarren diskoarekin erdietsi zuen bere ametsa, eta jada hiruga-rrena den oraingo Lagunak, adis-kideak... eta beste hainbat etsaire-kin bere bakarkako ibilbidea loratu du.

“HASIERATIK EGURRA EMATEN”

Beti oporretan izenburu zuen diskotik Hemen zeritzonera iraga-nez eta hirugarren honetara helduz, Xabierrek bere kanta beti egurra ematen egon direla dio. Haatik, abeslariak aitortzen du orain arte ekoiztutako hiru disko-



KAMISETAK:

KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETIXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

EUSKAL OIHALAK: MANTELAK, ZAPIAK...

NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

**ZURE
EUSKAL
DEZDIAK**

ak beraien artean guztiz ezberdina direla, eta ondorioz, bere azken lan musikalak aurrekoekin alderatuta beste bide bat hartu duela: "Aurrekoetan gitarren soinu potoloak zeuden batez ere, eta oraingo honetan berriz, ahotsa da nagusi".

Baina, Montoiak aipatu duenez berak benetan gustuko duena musika da, eta horregatik normalean abestien letra grabatu baino hamar bat egun lehenago egin ohi du. Guzak horrela, Xabierrek, jakin badaki talde nahiz abeslari askok musika norberaren iritzia eta egoera zabaltzeko bitartekari bezala darabiltela, baina ez da hau bere kasua. Bere aburuz, "ez dut ulertzen literatura eta musika konprometituaren kontua. Izan ere, harakin bati xerra konprometituak eskatu ezin dizkiozun neurri berean, ezingo dizkiozu eskatu mota horretako kantak musikari bati, norberak egon behar baitu konprometitu".



ASETASUNA HELBURU

Montoiak bere idazlanen inguruan aritzea gustuko ez duela argi gelditu den arren, literaturak mugitzen duen munduari buruzko zenbait iritzi plazaratzea lortu genuen. Bere idazle lanari 1983an Anfetamiña eleberriarekin hasiera eman zion gasteiztar honek egun idazle izateagatik bainoago abeslaria izateagatik ezagunagoa dela uste du. Edonola ere, Xabierrek

asetasuna bilatzen du bere zereginen, baita aurkitu ere: "Literaturak, oso gogoko dudana arren, batzuetan gozamina eta bestetan sufrimendua dakar; horregatik, askotan asetasuna momentuan lortzeko asmoz musikan murgiltzen naiz, azken honek bat-bateko atsegintasuna baitakarkit".

Josune Velez de Mendizabal
 **Gari Garaialde**
(Esan Ozenki Records)

DOVER. GURE BURUAZ BESTE EGITEA

Llanos ahizpek, Alvaro Diez eta Jesus Altunzek ez zuten sinetsiko orain dela hamar urte horrelako arrakasta itzela lortuko zutela esan izan baliote. Gaur, berriz, *Sister* eta *Devil came to me* diskoak bermetzat dituztela, *Late at night* beraien lan berria aurkeztu dute mundu osoko merkatu musika-lean. Seattlen grabatutako azken album honetan "indie" soinu gogorrenak behin bilduz gero, Doverrek Madril nahiz Iparramerikako nahastearen ezteandaz gozatzeko aukera ezin hobea eskaini zigun gasteiztarroi urriaren 30eko kontzertuan.



eta horrek aurrera jarraitzeko adore handia ematen digu.

• Zergatik erabaki zenuten ingelesez abestea?

-. Beti pentsatu dugu gustatzen zaiguna egin behar dugula, eta ondorioz, ingelesez atsegin dugunez, hizkuntza honetan abestea erabaki genuen hasiera batetik; ez dago beste arrazoirik. Are gehiago, hasi ginenean izan zen jendea

ingelesez abestea gure buruaz beste egitea bezala izango zela esan ziguna, baina hemen gaude.

• Gasteizen egon zineten lehenengo aldian Mendizorroitzeko pabilioian jo zenuten; orain, berriz, Elefante Blanco-n, askoz areto txikiago batean. Zergatik leku aldaketa hau?

-. Bira honetan leku txikiak, aretoak alegia, leku handiekin tartekatzen ari gara. Izan ere, leku txikiagoak nahiago ditugu atseginagoak direlako jotzeko, jendearengandik hurbilago sentitzen baikara.

• Zer moduzko zaleak dituzue gasteiztarren artean?

-. Primerakoak!!; gainera nire amona hemengoa zen eta maitasun berezia diot hiriburu honi, -dio Amparok-. Aurreko kontzertuan oso ondo pasatu genuen Gasteizen, eta oraingo honetan ere harrera bero-beroa jaso dugu gasteiztarrengandik.

• Zer sentitzen duzue hainbeste entzule eta zale ikustean zuen kontzertuetan?

-. Ez genuen espero inondik inora horrelako onarpen onik izatea musika munduan; urte hauetan gertatu dena oso onuragarria da guretzat. Horregatik, jendea gure kontzertuetara datorrela ikustean guztiz hunkitzen gara.

• Zein da zuen kantetan jorratzen dituzuen gaiak?

-. Idazten dugun gehiena kontu pertsonalak dira, sentimenduak edo emozioak. Hortaz, orokorrean gure kantei buruzko azalpenik ez dugu ematen. Entzuten gaituen jendea, gure musika ulertzeaz gain, berarekin zeharo identifikatzen da,

Agenda



Errege Atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



JANTZI

ETA

OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ


UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoieko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16

Tfnoa.: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

ARABAR IKASLEENTZAKO FILME LABURREN GIDOIEN LEHEN LEHIAKETA

D.B.H.ko arabar ikasleei zuzendua.

Antolatzailea: S.A.M.A. (Pedro Asua, 2 - 3.a)

Tfnoa: 945 24 46 03

Lanak aurkezteko epea: Abenduak 11 (euskaraz zein gaztelaniaz).

GASTEIZKO ANTZERKI JAIALDIA

TAUN-TAUN: "Txio Txioa"

Abenduak 11 - Ipar-Arriaga Antzokian

EUSKHARAN. IKASTURTE HONETARAKO EUSKARAZKO KULTUR ESKAINTZA

Kultur tailerrak, hezkuntzara zuzendutako ikastaro osa-
garriak, aisia eta astia, euskaldun berrientzako mintza-
praktika.

Euskharan Kultur Elkartea (Amaia Zentroa)

B. Pz. Galdos, z/g - Tfnoa: 945 28 82 75

IKASTAROAK

BAGARE EUSKAL TOKIA.

2. GAU ESKOLA - 1999/2000

Abendua, martxoa eta apirila.

Informazioa: 945 25 10 84

PARRAL TABERNAREN 4. URTEURRENA

Hiriko kontzertu eta ekitaldi kulturalen erreferentzia bihurtu
den Parral tabernak 4 urte bete ditu dagoeneko, eta ospa-
tzeko azaroaren 30etik hasita, asteartea, hilaren 3ra arte,
ostirala, ekitaldi desberdinak antolatu dituzte gaueko
8:30etatik aurrera: Txan Haundia hasteko, asteartean;
Legaleon T "Cómeme el punto" antzezlanarekin, hilaren
1ean; Joxe Ripiau, ostegunean; eta bukatzeko, hilaren 3an,
ostirala, PAM -"Puto Amoak Matematiketan"- rock taldea.

Zorionak Parral!!



GAZTEENTZAKO IV. ARGAZKI LEHIAKETA

ANTOLATZAILE: Udaleko Lehendakaritza Saila
eta Gazteen Zerbitzua

LAGUNTZAILE: Arabako Argazki Elkarte
14 urtetik 25era bitartekoentzat

AURKEZTEKO EPEA: ABENDUAK15

INFORMAZIO GEHIAGO: GASTEIZKO UDALA

IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN VI. LEHIAKETA

ANTOLATZAILE: Udaleko Lehendakaritza Saila
eta Gazteen Zerbitzua

LAGUNTZAILE: KIMUAK

14 urtetik 25era bitartekoentzat

AURKEZTEKO EPEA: ABENDUAK15

INFORMAZIO GEHIAGO: GASTEIZKO UDALA



AMODIOZKO GUTUNEN VIII. BERRIGARA LEHIAKETA

JARDUN ELKARTEA,
Juan Irazabal, z/g (Gartzela Zaharra)
20570 Bergara

Azken eguna: 2000ko urtarriak 10
Informazio gehiago: 616 70 8816

ARABARROK EUSKARARI BAI

MANIFESTAPENA.

**Abenduak 11
19:00etan**

Bilbo plazan

SORORIK SORO I
Mikel Valverde irudigilearen
ERAKUSKETA.
Dublin tabernan.
Abenduaren 9tik aurrera.

Literatura Unibertsala Bildu-
ma: Azken hiru argitalpenen
AURKEZPENA.
"Negu batez Mallorcan"
"Aita-semeak"
"Manhattan Transfer"

MIKO

izozkiak


GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

plató

TABERNA

Zaldieran Plaza, 10 - Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA
jatetxea

on egin! bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:


Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



Txeroki



**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Shommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33 16 12 61 16 36 91 16 15 19 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

Gurekin euskaraz



KOLDO MITXELENA INSTITUTUA
Euskalduna